

**PASAIKO PORTURA BISITA / VISITA AL PUERTO DE PASAIA**

2016-07-20 Pasaia 20-07-2016

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, ahaldun nagusia, foru diputatua, Donostiko eta Pasaiaiko alkatesa eta alkate jauna, herri agintariok, herri ordezkariok, egun on eta eskerrik asko gaur ekitaldi honetan izateagatik.

Elkarlana izan da legealdi honetako ardatza eta Pasaian topatzen dugu honen adibide argia gaurko honetan. Erakunde publiko guztiak bat gatoz. Elkarlanaren bidez proiektu integral hau aurrera ateratzen ari gara eta, garrantzitsuena dena, hiritarren bizi kalitatea eta aukera berriak sustatzen ari gara.

Proiektu honetan lau arlo elkartzen dira: azpiegiturak, ingurumena, paisaia eta ekonomia. Lau arlo hauek elkarrekin eta elkarlanaren bidez garatuz, gure helburu guztiak betetzea lortuko dugu.

El Gobierno Vasco ha promovido la colaboración y acuerdo entre las instituciones para avanzar en el desarrollo humano sostenible de nuestro País. La Bahía de Pasaia ofrece un potencial de desarrollo a todas las localidades de su entorno. Inicia una ilusionante adaptación a las nuevas realidades urbanísticas, sociales, culturales y económicas de este siglo

Debido al cambio de modelos globales de producción, mercados y circuitos de transporte, muchos Puertos acometen reformas estructurales y de actividad. Tratan de regenerar sus espacios y ofrecer nuevas posibilidades de desarrollo y de vida en un entorno sostenible. La revisión del Plan Especial abre al uso público y a los servicios urbanos más de ocho hectáreas de dominio portuario.

El convenio entre el Gobierno Vasco y el Puerto, acompañado de otros proyectos de colaboración interinstitucional, permite dar este primer paso para la regeneración integral de la Bahía de Pasaia.

La primera materialización práctica es la conexión peatonal y ciclista de la estación de Euskotren con Trintxerpe, que habilita un nuevo entorno verde y de

confort. El Gobierno ejecuta esta conexión Euskotren-Trintxerpe con un presupuesto de 5.500.000 euros.

Eusko Jaurlaritzak eta Portuak Plan Berezi berri bat onartu dugu. Horrekin batera, Erakundeekin elkarlanean, hainbat ekintza bideratzen ari gara:

- Komunikabideak hobetu,
- Ekipamendu publiko berriak sortu, edo
- Portuaren balio estrategikoa indartu.

Eusko Jaurlaritzak, Portuarekin batera, guztira bost milioi eta erdi euro inbertitzen ari da Trintxerperen konexio berrirako, komunikabideak hobetzeko eta pertsonen mugikortasuna errazteko. Guztira zortzi hektarea irabaziko ditugu erabilpen publikorako.

Portuaren zeregina ezinbestekoa da Badian. Porturatzeko eta portutik ateratzeko tokia babestu dugu. Baita gune industrialak eta lotune intermodala ere. Horrekin ahalmen logistikoa hobetu dugu. Herri gunea, itsaso aldea eta paisaiaren balioa eusten ditugu ere. Hemendik aurrera toki gehiago izango dugu jardueraren berriak egiteko, baita aisialdirako eta kulturarako ere.

Hoy destacamos el ejemplo de reconversión de un astillero en un Museo vivo y esto es lo que quiero subrayar también en este acto de hoy. Me refiero al astillero de Albaola, que ha sabido recrear parte de la historia vasca. Desde aquí partían, hace 500 años, los barcos que se dedicaron a la pesca de la ballena en Labrador y Terranova.

Los estudios de la investigadora anglocanadiense Selma Huxley Barkham, premio Lagun Onari 2014, han contribuido a la localización de las estaciones balleneras vascas en Canadá, reconocidas como Patrimonio de la Humanidad por la UNESCO. Este es el caso de la estación ballenera del siglo XVI de Red Bay. Allí, desde 1563, se encuentra sumergido el ballenero San Juan cuya réplica se construye en Albaola.

Albaola es “la factoría marítima vasca” y se ha convertido en escuela de carpinteros de ribera; reclamo turístico; laboratorio de ideas para la promoción artesanal o gastronómica; y aula de enseñanza. Esta es una actuación en el ámbito de las industrias culturales y creativas, un eje de desarrollo económico, social y cultural de futuro para Euskadi.

Pasaiako Badiaren berritze prozesu honetan, beraz azpimarratzekoa da baita ere Albaola proiektua eredugarria delarik. Ontziola zahar bat berritzen ari dira eta, egun, Museo bizi bat da. Lagun Onari saria jaso zuen Selma Husley

Barkham-ek Red Bay-en hasitako ikerketei jarraipena eman zaie hemen. Proiektu kulturala da honako hau, baita prestakuntzarakoa ere; gure ondarea eta historia hobeto ezagutzeko balio handia eskaintzen diguna. Albaola euskal itsas faktoria da.

Lan asko dugu egiteko Pasaiako Badia berritzeko eta berpizteko. Erakunde guztiak, elkarrekin eta elkarlanaren bidez, gure helburuak betetzen jarraituko dugu.

Beraz, gaurko honetan hasitako bidea hau zorionduz bai Gipuzkoako Foru Aldundia, bai Donostiko Udala, Pasaiako Udala baita Portua bera ere bai, eta erakunde guztiak. Aipatuz, nik zoriondu egiten zaituztet guztiok, ez bakarrik hiritarren bizi kalitaterako, aipatutako lau arlo horietarako ere, emankorra izan dadila gaur hasten dugun bidea.

Beraz, zorionak eta eskerrik gaurkoan.